



xa sencillamente
transformar la realidad



www.mensajesenredados.com

2016ko abendua

Begirada soziala Eskolapioen Bilboko kristinau alkartetik

Zubiak eraikiz

Erlijinoen arteko hartu-emona

Esaten dabenez, astronautek, lurrari espaziotik begiratzten deusenean, lehenengo astean bakarrik euren herrialdeari begiratzten deutse; bigarren astean, kontinente osoari, eta hirugarren astetik aurrera, planeta bakarreko biztanle dirala sentitzen dabe. Beharbada, euren gan gertatzen da laburtuta gizadiaren prozesua: talde jakin bateko partaide izateak besteakaz baztertzaila izatera daroan tribu-senetik, apurka apurka munduaren senidetasunezko zerumuga zabaltzera.

Irudi horrek egingo deutso sarrera gure gaiari.

Estatu espainiarrean bizi dan **aniztasun kultural** zein **erlijiosoa**, azken hamarkadetan gertatu izan diran **mobimentu migratzaileei** esker areagotu egin dan aniztasuna dala-eta, askok uste dogu ezinbestekoa dala dalako **aniztasun horren gestino positiboa** eta gizarteak hori onartzea eta errespetatzea, alkarrizketarako eremua ahalbideratuz, ezinbesteko egiteko honetan zerikusia daben alde guztiek funtsezko eginkizuna dabela ulertuta. Honen haritik, **kulturartekotasunaren aldeko** apustua egingo dauan **gizartearen** alde gagoz, desbardina autortu eta, ondorioz, bestea onartu ahal izateko, guzti honek **erlijinoen arteko hartu-emona bideratu daian**.



Barne hartzen dauan laikotasunaren alde dagozan gizarteko sektore laiko batzuen apustua da. Dalako laikotasun horrek bere egiten dau **erlijino batzuek eta besteek** izan daiki-en **eginkizun positiboa**, **eremu publikoan** euren

presentzia suspertuz eta euren parte-hartzea gehituz gizabidezko balioen sendotzean, **kapital soziala** ezartzeko eta, bide batez, gizartearen kohesino eta egituraketan laguntzeko.

Barne hartzen dauan laikotasunaren proposamen hau ideia honetan datza: nortasun anitz dagoala autortzean eta bestea onartzean, alkarregaz **eremu etiko konpartituaren barruan bizikidetasun-egitarau bateratua eraikitze**ko borondatea alkarri autortuz.

Askatasun erlijiosoa, nazinoarteko hainbat arau juridikotan eta beste hainbat ordenamentu nazionaletan jasotako esku-bidea da.



Askatasun erlijiosoa, beraz **autortuta dagoan funtsezko esku-bidea da**. Baina, autortza, lehen urratsa bada be, ez da nahikoa. Gaur egungo Euskadi lako gizarte gero eta anitzagoetan, ezinbestekoa da eskubide horren

gauzatze eraginkorrerako baldintzak sortzea, bere kanpo-adierazpenen **aniztasuna** eta, bakarkako alderdian zein alkarte alderdian, aniztasun horretatik eratorritako berariazko beharrianak kontuan hartuta. Misi-no hori aginte publikoei dagokie neurri handi batean, euren erantzukizuna dalako aniztasun hau euren ardurapean dagozan **politiketan, erakundeetan eta zerbitzuetan txertatzea**, behar diran moldaketak eginez, aldi berean **tratu-bardintasuna bermatzeko** eta **aniztasunean bizikidetasuna suspertzeko** konpromisoak aurrera erodateko. Aniztasun erlijiosoaren kudeaketa positiboak beste hau be eskatzen dau: lankidetzazko dinamikak ahalbideratu, herritarren era bateko eta besteke beharrianezi erantzuteko, informazioaren, partaidetzaren eta alkarrizketaren bidez.

ESPERIENTZIA

[Fundación Social Ignacio Ellacuria](#) dalakoak 2006tik dihardu erlijinoen arteko hartuemonaren aldeko jardunean, honako ekimenen bitartez:

- [DIAR](#) alkarrizketarako mahaia
- Ekitaldiak makina bat erlijinoen partaidetzagaz
- [Sendotzeko akonpainamentua](#) alkarte erlijiosoentzat ([Bidaya](#) alk., [Soubulou Salam](#) alk. eta [PAK Vizcaya](#) alk.).
- [Erlijino arteko urteroko jardunaldiak](#)
- Erlijino arteko urteroko agenda
- Aniztasunean bizikidetasuna hobetzen daberen egitasmoak garatuz, estereotipo negatiboak eta, orokorrean, alkarte musulmanean eta, zehazki eta bereziki emakume eta gazte musulmanarengan eragina daberen gaitzespeneko jarrerak desaginez.
- Akonpainamentua [Instituto de Derechos Humanos Pedro Arrupe de la Universidad de Deusto](#), dalakoagaz batera erlijino arteko udal mahaiei Bilbon eta [Donostian](#).
- [Agerkariak prestatu](#) beste erakunde batzukaz batera, aniztasun erlijiosoaren kudeaketa positiboari buruz.

Gehiago sakontzeko

Erlijino arteko lotura

1. ARCRE (frantsesa) <http://www.arcre.org/>
2. AUDIR Erlijinoen arteko hartu-emonerako UNESCOren alkatea (katalana) <http://audir.org/>
3. GUNE Erlijino eta kultura arteko bategite eta hartu-emonerako eremua (Zumaia) <http://www.gunee.org/index.php/es/>
4. DIAR Alkarrizketarako mahaia (Bilbao) <http://blogs.centroellacuria.org/diar/enlaces/>
5. PORTAL DORADO Lizarrako foro espirituala <http://www.portaldorado.com/>
6. United religions Initiative <http://www.uri.org/spanish>
7. Dialogal. Erlijino arteko eta uste sendo arteko hartu-emonaren ingurukoa <http://dialogales.org/>
8. Erlijinoen parlamentua http://www.earthspirit.com/espagnol/parland_sp.html
9. CETR Giza ezaugarriak ikertu http://cetr.net/quienes_somos/?lang=es
10. ANAYAREN erlijinoen historia eta kultura <http://www.edistribucion.es/anayaeducacion/8420038/>

Beste atari interesgarri batzuk

1. Abdenour Pradoren bloga <https://abdennurprado.wordpress.com/>
1. Atrio <http://www.atrío.org/>
2. Kristau sareak <http://www.redescristianas.net/>
3. Fede heldua <http://www.feadulta.com/es>
4. Parentesi artean, mugetan alkarrizketan jardun. <http://entreparesis.org/>

Erlijinoak

- Islama:
 - WEB Islam <http://www.webislam.com/>
 - Espainiako Alkarte Islamikoen Alkartasuna <http://ucide.org/>
 - Euskal Herriko Federazio Islamikoa <http://fivasco.blogspot.com.es/>
- Fe BAHÁ'Í <http://www.bahai.org/es/>
- Euskal Herriko Batzorde Ebanjelikoa <http://www.euskalnet.net/cepv/>
- Azken Eguretako Santuen Jesukristoren Eleiza <https://www.mormon.org/spa/>
- Jehovahen lekukoak <https://www.jw.org/es/>
- Soto Zen Federazio Budista <http://www.federacionbudista.es/comunidad-budista-soto-zen.html>
- Budismo tibetarra <http://budismotibetano.net/portal/>
- Espainiako Alkarte Judutarren Federazioa <http://www.fcje.org/>
- Cienciologia <http://www.scientology-madrid.es/>
- Eleiza Katolikua <http://www.es.catholic.net/>

